

EAEko IRAKASLEAK

EPE 2025 - BIGARREN HEZKUNTZA

Behin-behineko zerrenda argitaratu dute programazio didaktikoa ez aurkezteagatik. Erreklamazioak [Hezigunean](#) ekainaren 6tik 12ra, biak barne.

Epaimahaien osaera argitaratu zuten [hezkuntzaren web-orrian](#) maiatzaren 30ean.

Eragindako pertsonak horrela badagokio, salbuespena eskatuko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bost egun balioduneko epean, hautaketa-organoen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

ZERBITZU EGINKIZUNAK

Behin-behineko ebazpenak argitaratu dituzte. Erreklamazioak ekainaren 6ra arte, egun hori barne. [Lotura](#).

Osasun arrazoien zerbitzu eginkizunen kasuan, onartuen eta baztertuen behin betiko ebazpena argitaratuta dago. [Lotura](#).

IKHA/COCU 2025-2026

Karrerako funtzionarioentzat ofiziozko esleipenatarako lurralde historikoa aldatzeko eskaera epea irekiko da ekainaren 9ko 12:00etatik ekainaren 13ko 12:00etara.

Eskabideak: [hezigunean](#) prestatutako inprimakiaren bidez.

IRALE 2025-2026 IKASTURTERAKO

Sarrera-azterketarako behin-behineko onartuen zerrenda argitaratu da. Erreklamazioak ekainaren 6tik 10era, biak barne.

Zerrenda honetan onarturik agertzeak ez du esan nahi, irakasle hori onartua dagoenik 2025-2026 ikasturtean U2 egiteko. Hau da, ekainaren 17an sarrera-azterketa egin behar duela adierazten du.

- [Irakaskuntzako langile bitartekoak eta ez-finkoak.](#)
- [Irakaskuntzako langile funtzionarioak eta finkoak.](#)

**HEZKUNTZA SAILA,
LAN AKORDIOA BETE!!!**

www.steilas.eus